



BADALAB HIZKUNTZA BERRIKUNTZAKO PARTZUERGEOA

2023KO AURREKONTUAREN MEMORIA

1. PARTZUERGEOAREN AURREKONTUAZ AURREIKUSPENA

2022an ezarri dira laborategiaren egiturazko oinarriak:

- Lantaldea martxan da.
- Egoitzaren egokitzapena amaituta, espazio fisikoa erabilgarri dago.
- Gobernantza eta deliberazioa prototipatu dira eta oinarrizko sistema bat definitu da.
- 2022-24 epeladirako gida estrategikoa onartu da.

Laborategiaren egitekoa da euskara etorkizunean kokatzen laguntzea, biziberritze prozesuaren protagonista eta eragileei espazio, tresna eta esperientzia berritzaileak eskainiz. Jardueraren azken hartzailea da euskararen hiztun komunitatea.

Laborategia txikia da eta ez du inor ordezkatu nahi. Horregatik, bere funtzio posibleen artean lehentasunezkoa da eragitea, bestela gertatuko ez liratekeen esperimentuak eta loturak ahalbidetzea, lankidetzan.

Esperimentazio gunea den neurrian, onartu da finkatutako gida estrategikoak jarduna gidatzen lagundu eta norabidea eusteko baliagarria izan behar duela. Hau da, helburua ez da gida bere horretan modu hertsian betearaztea, baizik azken helburua den hiztun komunitatea elikatzea etorkizuneko agertokietan euskara presente egon dadin. Honek ekar lezake ondoren azalduko diren hainbat proiektuetan aldaketa. Norabide honetan, jardunaren etengabeko ebaluaketa garrantzitsua izango da.

2. 2023KO AURREKONTUAK OSATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDE NAGUSIAK:

Inor ordezkatu gabe, etorkizunean euskara kokatzea xede, honako ardatz estrategikoak definitu dira. 2023ko jarduna hauek gidatuko dute:

CONSORCIO DE INNOVACIÓN LINGÜÍSTICA BADALAB

MEMORIA DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2023

1. PREVISIÓN PRESUPUESTARIA DEL CONSORCIO

En 2022 se establecen las bases estructurales del laboratorio:

- El equipo de trabajo está en marcha.
- Finalizado el acondicionamiento de la sede, el espacio físico está disponible.
- Se prototipan la gobernanza y la deliberación y se define un sistema básico.
- Aprobación de la guía estratégica para el periodo 2022-24.

Su misión es contribuir a posicionar el euskera en el futuro, proporcionando espacios, herramientas y experiencias innovadoras a los protagonistas y agentes del proceso de revitalización. El destinatario final de la actividad es la comunidad vascoparlante.

El laboratorio es pequeño y no quiere sustituir a nadie. Por ello, entre sus posibles funciones, es prioritario incidir, facilitar en cooperación, experimentos y conexiones que de otra manera no se producirían.

Como espacio de experimentación se reconoce que la guía estratégica definida debe servir para guiar y mantener la dirección de actuación. Es decir, no se trata de hacer cumplir la guía de una manera estricta, sino de alimentar a la comunidad hablante, objetivo último, para que el euskera esté presente en los escenarios futuros. Esto puede suponer una modificación en algunos de los proyectos que se exponen a continuación. En esta dirección, la evaluación continua de la actividad será importante.

2. PRINCIPALES CRITERIOS UTILIZADOS PARA ELABORAR LOS PRESUPUESTOS DE 2023:

Con el objetivo de situar al euskera en el futuro sin reemplazar a nadie, se han definido los siguientes ejes estratégicos. La actividad del año 2023 estará guiada por:



- **AE1. ERAGINKOR IZATEA.** Inor ordezkatu gabe, abian denari balioa eranstea eta lankidetzaz bidez inaktuak biderkatzea.

Laborategiaren bokazioa ez da bera garatzea, baizik eta besteengan eragitea. Lantalde txikia izango duenez, ezinbestekoa da lantaldeko pertsonen eta haien egiteko moduen eraginkortasuna etengabe sustatzea, ahalik eta handiena izan dadin aldiro. Langileen eta lantalde hedatuaren garapenean besteenganako joera landuko da bereziki, lankidetzan eta teknologia menderatuz jarduteko gaitasuna sustatuko da.

- **AE2. EKOSISTEMA ARTIKULATZEA.** Harreman-eredu propioa oinarri hartuta, helburu komuna lortzeko aktiboki lan egingo duen ekosistema antolatzea. Euskararen prozesuak eragile askoren sorrera ahalbidetu du, eta ekosistema konplexua garatu da azken hamarkadetan. Askotariko eragile horien artean zerbait falta izatekotan seguruenik ez da eragile gehiago sortzea, baizik daudenak artikulatzea helburu komunei indartsuago ekiteko.

Badalaben estrategia, hain zuzen, horretara bideratuko da: euskararen ekosistemaren baitan harremanak eta lankidetzak sustatzera ekimen berritzaileen bitartez, azpiegitura digital egokienak baliatuz, egungo dinamiken arteko elkarrekinak urrunago eraman ditzan egitasmoak eta jomugak, eta euskara hurbildu diezaien periferietan dihardutenei.

- **AE3. KOMUNITATEA ELIKATZEA.** Euskararen komunitateari laguntzea gero eta anitzagoa den ingurunean eragile eta erreferente izaten.

Euskal gizartea, munduko beste guztiak bezala, gero eta mestizoagoa da, askotariko hizkuntza, kultura eta identitatez aberasten ari da. Hiztun komunitatearen ikuspegitik,

- **AE1. EFICIENCIA.** Añadir valor a lo que está en marcha sin reemplazar a nadie y multiplicar el impacto mediante la cooperación.

No es vocación del laboratorio su propio desarrollo, sino influenciar y añadir valor a los demás. Al tratarse de un equipo de trabajo reducido, es imprescindible fomentar de forma continua la eficacia de las personas y de sus formas de hacer para que sea lo más más eficiente cada vez. En el desarrollo del personal y del grupo de trabajo extendido se trabajará especialmente la orientación hacia los demás, fomentando la capacidad de cooperar y de actuar dominando la tecnología.

- **AE2. ARTICULACIÓN DEL ECOSISTEMA.** Organizar un ecosistema que trabaje activamente en la consecución de un objetivo común en base a un modelo propio de relación. El proceso del euskera ha permitido la creación de muchos agentes y en las últimas décadas se ha desarrollado un ecosistema complejo. En caso de faltar algo, probablemente no será generar más agentes, sino que se articulen los existentes para abordar con más fuerza los objetivos comunes.

La estrategia de Badalab se orientará a fomentar las relaciones y colaboraciones dentro del ecosistema a través de iniciativas innovadoras que, utilizando las infraestructuras digitales más adecuadas, permitan que la interacción entre las dinámicas actuales eleve el impacto de los proyectos y las metas y acerque el euskera a las personas que están en las periferias.

- **AE3. ALIMENTAR LA COMUNIDAD.** Apoyar a la comunidad vasca como agente y referente en un entorno cada vez más diverso.

La sociedad vasca, como todas las del mundo, es cada vez más mestiza, se enriquece de lenguas, culturas e identidades diversas. Desde el punto de vista de la comunidad hablante, hay que



homogeneotasunaren ordeztu behar da errespetuzko aniztasunaren baitan euskaraz bizitzeko eta garatzeko eskubidea bermatuta egotea, eta euskara hautatzeko motibazioa piztea, hizkuntza hegemonikoen aldeko inertzia gaindituz.

Badalabek ekarpena litzateke euskararen komunitatea elikatzea, gero eta anitzago den gizarte horretan eragile eta erreferente posizioa har dezan, esparru edo funtzio jakinetan gihartsu ageri delako. Elikatzeak bi ildo izango lituzke:

- balio-sistema sendoa eta zeharkakoa, bateragarria izango dena masa kontsumoetan lehiatzearekin.
- tresna nahiz ekimen desberdinak, aurreratuak eta erakargarriak.

2022 urtearen azken hiruhilekoan jarriko dira martxan ardatz hauen garapena diren lehen proiektu edo esperientziak. Epealdi honetan nagusiki landu dira lehen eta bigarren ardatzak martxan jartzeko engranaiak. 2023 urtean, bi hauek mugimenduan mantentzeaz gain, hirugarren ardatzari helduko zaio.

2023ko aurrekontua kapituluz kapitulu xehetuta:

I KAPITULUA:

Badalabek lantaldea 2022 urtean zehar osatu zen. Estructuralki 3 izango dira laborategiaren lantaldea osatzen duten pertsonak, zuzendaria bi berrikuntza eragilerekin batera. Ez dago aurreikusita lantaldea handitzerik.

Oinarritzko soldatez gain, aurreikusten da partida bat lantaldearen ongizatea bermatzeko helburua duena, adibidez, garraio publikorako eta elikadura osasuntsurako bonoak.

soñar con, en lugar de la homogeneidad, garantizar el derecho a vivir y desarrollarse en euskera dentro de una diversidad respetuosa y estimular la motivación para elegir el euskera, superando la inercia a favor de las lenguas hegemónicas.

La aportación de Badalab sería alimentar la comunidad del euskera, para que adopte una posición de agente y referente en una sociedad cada vez más plural, por su fortaleza en ámbitos o funciones concretas. La alimentación tendría dos líneas:

- un sistema de valores sólido e indirecto, compatible con la competir en los consumos de masas.
- herramientas e iniciativas diferentes, avanzadas y atractivas.

En el último trimestre del año 2022 se pondrán en marcha los primeros proyectos o experiencias que supongan el desarrollo de estos ejes. Durante este periodo se ha trabajado principalmente en la puesta en marcha de los engranajes de los ejes primero y segundo. En el año 2023, además de mantenerse en movimiento, se abordará el tercer eje.

El presupuesto 2023 detallado capítulo por capítulo:

CAPÍTULO I:

El equipo de Badalab se constituyó a lo largo del año 2022. Estructuralmente serán 3 las personas que componen el equipo de trabajo del laboratorio, la dirección junto con dos agentes de innovación. No está prevista la ampliación del equipo de trabajo.

Además de los salarios base, se prevé una partida destinada a garantizar el bienestar del equipo de trabajo, como son los bonos de transporte público y alimentación saludable y de temporada.



II KAPITULUA:

Gastu arruntak hiru bloke nagusitan bereizi daitezke:

- Egoitza eta funtzionamendu gastuak. Errenteriako Madalen kaleko 27an kokatzen den egoitza fisikoaren alokairua eta Badalab funtzionamenduan mantentzeko beharrezko gastuei dagokie (hornidurak, aseguruak, ordezkariak gastuak, formakuntzak, joan-etorriak...). Badalaben funtzionamenduari buruz ari garenean, espazioaz gain pertsonen ere ari gara.
- Lankidetzak ez-ohikoak eta esperimenduak. Laborategiaren jardunaren muina dira. Definitutako gida estrategikoaren baitan eta 2022an abiatutako proiektuetatik eratorritako ikasketen arabera jarraituko da esperientziak sortzen, espazioak eskainiz, eta bidea baliatuz ekosistemako eragile desberdinek erabil ditzaten tresnak eta metodologiak garatzeko. Aurreikusita dago abiatutako proiektu desberdinen jarraipena, hala nola, etorkizuneko ikuspegiaren lanketa, bizikidetzaren protokoloaren definizioa eta prototipatuaren jarraitzea, aniztasunaren lanketan urratsak ematen jarraitzea. Badalab espazio seguru izan dadin, garapenean diren teknologiei ekarpena egiteko espazioak eta dinamika diseinatzea...

Azpimarratu behar da Badalabek hastapen hauetan garatuko dituen proiektuak izatera ezberdinekoak direla:

- o Badalabek sustatuak. Laborategiak estrategikotzat jotzen dituen proiektuak dira. Izan daitezke bere burua garatzeko beharrezko dituelako (Badalab hibridoa, bizikidetzaren protokoloa), izan daitezke, bestela, bere jardunaren bilakaera baldintzatuko dutelako (etorkizuneko ikuspegiaren konstelazioa, aniztasunaren lanketa...). Hauen finantziazioaren ezaugarriak kasu bakoitzeko dira, baina,

CAPÍTULO II:

Los gastos corrientes pueden dividirse en tres grandes bloques:

- Gastos de sede y funcionamiento. El alquiler de la sede física sita en Madalen kalea, 27 de Errentería y los gastos necesarios para mantener en funcionamiento Badalab (suministros, seguros, gastos de representación, formación, desplazamientos, ...). Cuando hablamos del funcionamiento de Badalab nos referimos, además del espacio, a las personas.
- Colaboraciones improbables y experimentos. Constituyen el núcleo de la actividad del laboratorio. En el marco de la guía estratégica definida y en función de los aprendizajes derivados de los proyectos iniciados en 2022, se continuará generando experiencias, proporcionando espacios y aprovechando el camino para desarrollar herramientas y metodologías que puedan ser utilizadas por los diferentes agentes del ecosistema. Está prevista la continuidad de los diferentes proyectos emprendidos, como la elaboración de la visión de futuro, la continuidad en la definición y prototipado del protocolo de convivencia, la continuidad en el trabajo sobre la diversidad para que Badalab sea un espacio seguro, el diseño de espacios y dinámicas que contribuyan a las tecnologías en desarrollo...

Hay que destacar que los proyectos que Badalab va a desarrollar en estos principios son de distinta naturaleza:

- o Promovidas por Badalab. Son proyectos que el laboratorio considera estratégicos. Pueden ser porque son necesarios para desarrollarse (Badalab híbrido, protocolo de convivencia), porque si no, condicionarán la evolución de su actividad (constelación de visiones de futuro, elaboración de la diversidad...). Las características de su financiación se analizarán en cada caso, pero se



lehentasunez, ekosistemako eragileekin elkarlanean sustatuko dira, eta euren garapen osoa bermatuko da.

- o Ekosistemako eragileek proposatuak. Proaktiboki bilatuko da dagoeneko abian den horretan eragitea, edo abia daitekeen hori ahalbidetzea. Bestela gertatuko ez lirakeen horiei bide emateko ahaleginak egingo ditu Badalabek, baina beti aintzat hartuz ideiekin eta egiteko moduekin esperimendatzeko gunea dela laborategia. Honek esan nahi du, finantziatorik jartzekotan, Badalabek ez duela proiektu amaitua finantzatzeko, baizik esperimendua.

- Komunikazioa eta sozializazioa. Laborategiak egiten duena bezain garrantzitsua da nola kontatzen duen. Erpin ezberdinetatik helduko zaio honi, bilatuz sortzen diren komunikazio artefaktuak agentziadun elementuak izan daitezen, abian den jarduna elikatuko duten artefaktuak. Izaera desberdina edukiko duten proiektu eta edukiak aurreikusten dira, geruza digitala eta presentzialak uztartuko dituztenak.

IV KAPITULUA:

Bereziki gazteekin esparru partekatua eraikitzeke helburua dute kapitulu honetan bildutako partidek.

Beka izaera izango dute, eta askotarikoak izango direla aurreikusten da: ikerketa bekak, unibertsitate praktikaldiak, proiektu desberdinen garapenerako bekak...

4. BESTELAKO FINANTZIAZIOA

GFAk Badalaben egingo duen ekarpenari gehitu behar zaio Errenteriako Udalak egingo duena.

fomentarán preferentemente en colaboración con los agentes del ecosistema y se garantizará su pleno desarrollo.

- o Propuestos por los agentes del ecosistema. Se buscará proactivamente incidir en lo que ya está en marcha o posibilitar lo que se pueda emprender. Badalab intentará dar paso a lo que no hubiera ocurrido de otra manera, pero siempre teniendo en cuenta que el laboratorio es un espacio para experimentar con ideas y formas de hacer. Esto quiere decir que, en caso de financiarse, Badalab no financiará el proyecto terminado, sino el experimento.

- Comunicación y socialización. Tan importante como lo que hace el laboratorio es cómo lo cuenta. Se abordará desde diferentes vértices, buscando que los artefactos comunicativos sean elementos con agencia que alimenten la actividad en curso. Se prevén proyectos y contenidos de diferente naturaleza que combinen la capa digital con la presencial.

CAPÍTULO IV:

Las partidas recogidas en este capítulo tienen como objetivo la construcción de un espacio compartido con los jóvenes en particular.

Tendrán carácter de beca y se prevé sean de carácter muy diversos: becas de investigación, prácticas universitarias, de desarrollo de diferentes proyectos...

4.- FINANCIACIÓN ADICIONAL

A la aportación de la DFG en Badalab hay que añadir la que hará el Ayuntamiento de Errenteria.

BADALAB 2023KO ADMINISTRAZIO AURREKONTUA / PRESUPUESTO ADMINISTRATIVO 2023			
Gastuak/Gastos	Zenbatekoa Importe	Sarrerak/Ingresos	Zenbatekoa Importe
1.- Langileria gastuak / Gastos de personal	198.587,62	1.- Zuzeneko zergak / Impuestos directos	536.300,00
2.- Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak / Gastos corrientes en bienes y servicios	307.712,38	2.- Zeharkako zergak / Impuestos indirectos	
3.- Gastos financieros / Finantza gastuak		3.- Tasak eta bestelako dirusarrerak / Tasas y otros ingresos	
4.- Transferentzia arruntak / Transferencias corrientes	30.000,00	4.- Transferentziak arruntak / Transferencias corrientes	
5.- Kontingentzietarako eta beste ezusteko batzuetarako funtsa/ Fondo de contingencia y otros imprevistos.		5.- Ondare sarrerak / Ingresos patrimoniales	
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes.	536.300,00	Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes.	536.300,00
6.- Inbertsio errealak / Inversiones reales		6.- Inbertsio errealak besterentzea / Enajenación de inversiones reales	
7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital		7.- Kapital transferentziak / Transferencias de capital	
Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital		Kapital eragiketak, guztira Total operaciones de capital	
8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros		8.- Finantza aktiboak/ Activos financieros	
9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros		9.- Finantza pasiboak Pasivos financieros	
Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras		Finantza eragiketa, guztira Total operaciones financieras	
Guztira/Total	536.300,00	Guztira/Total	536.300,00